



“Neure burua ‘positive bomb’ bilakatu nahi dut”

Maidier Segurola | Irratirako jaioa

Euskal Herriko eta nazioarteko musikarien hitzak erabiliz heldu dio galdetegi maltzurari, halere erantzun zehatzak topa daitezke lerro artean irakurriz gero.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Dani Blanco

Euskadi Gazteari egiten zaizkion kritika latzen artetik –besteak beste, irрати *hortera* eta espainiarra dela, hala musika hautaketan nola esatarien hizkeran– zein iruditzen zaizu injustuena?

“Esaiguzu zein den zure ideia, ezberdinak izan gaitezke. Noren kontra zauden baino gehiago, zer egiteko prest”. (Berri Txarrak).

Eta justuena?

“Palabras más, palabras más, es lo de siempre”. (Los Rodríguez).

Zure lanean aritzeko zenbateraino da komenigarria musika-gustua oso garaturik izatea?

“Kolare kolore ta gustu guztiak, denontzat denontzat ez dira berdinak”. (Zaldibobo).

Zurea nola aldatu da urte hauetan?

“Ikusi eta ikasi eta ondo entzun, hobeto heldu, hobeto heldu”. (Delirium Tremens).

Esadazu: lehen gustukoa ez zeneukan, baina orain maite duzun kantaria...

“Maite zaitut, maite maite zaitut, pila pila pila patata tortilla”. (Pirritx eta Porrotx).

Telebistan ere aritzen zara bideo-klip aurkezle. Robot batek bezala besoak mugitzea, zertan da *cool* edo modernoa?

“1, el breikindanse; 2, el crusaito; 3, el maikel jakson; 4, el robocop”. (R. Chiquilicuatre).

Gazte askorengan *euskañola* da nagusi. Euskara gaztea gero eta zulatuago, ala gero eta osatuago ikusten al duzu?

“Neure burua *positive bomb*, bilakatu nahi dut *positive bomb*, pentsatu nahi dut *positive bomb*, eztanda egingo dut *positive bomb*”. (Joxe Ripiau).

Euskal Musika Gaztea dela-eta, galdera bera.

“Zenbat arazo ditu gaur Euskal Herriak, asko xamar oraindik balitu erdiak. Zenbat galdera ditu gaur Euskal Herriak, nahiago nuke bihar balitu erdiak”. (Tapia ta Leturia).

Esadazu: oharkabea pasa den euskal talde edo bakarlari bat, gehiago merezi zuen arren...

“Xumea naiz itxuraz, xumea naiz egiaz, udaberriko gamin harrotuen antzera”. (Txuma Murugarren).

Jakin dut Lasarteko gazteek “pikadero” modura erabiltzen duzen tokiari “hipodromo” deitzen diozuela!

“Eta prakak ezin kendu, ezin izango dot inoiz ahaztu, ezin kendu alkondarie sofaren gainen etzunde”. (Gatibu). ■